

Arizmendiarieta filosofo eta pentsalaria errebindikatuz

Jose Mari Larramendi Kaltzakorta

Arizmendiarietaren Lagunak Elkartearen sortzailea eta lehendakaria

Parisen filosofia eta antropologia ikasi eta enpresa ezberdinetan lanean jardun ondoren, Mondragon Korporazioko kooperatibetan hogeita hamabost urtez aritu izan naiz.

Arizmendiarietaren Lagunak Elkartearen (ALE) fundatzaileetariko bat eta zortzi urtez lehendakaria izan ondoren, bere pentsamendua gaurkotu eta bereziki bere balioen unibertsoa identifikatze lanetan ari naiz gaurdaino.

Antropologo frustratu edo sasifilosofo baten antzera nator zuen aurrera. Nire lanbide osoan enpresa kudeaketaren munduan jardun izan naiz. Zati nagusia kooperatibetan. Pentsamendu eta ikerketara begiratzeko nire leihatilatxoa hori izan da beti, nahiz eta azken urteotan, erretiro garaian, gehiago hurbildu izan naizen pentsamendu eta hausnarketa zereginetara.

Arizmendiarietaren irudi ezagunena

Arizmendiarietaren ospea, handia edo txikia, Arrasateko proiektu sozio-enpresarialari atxikia aurkitzen da.

Hala nola: lider, fundatzaile, sustatzaile, sortzaile, suspertzaile eta antzeko deiturak dira ohizkoenak. Internetera joango bagina, «Mondragon Korporazio Kooperatiboaren fundatzaile den apaiz katoliko espainiarra» bezala aurkitu genezake. Eta modu anekdotikoan, tarteka «apaiz kooperatibotzat» jotzen dute.

Mondragon Unibertsitatearen beraren inguruko argitalpenetan ere, bere «pentsamendu praktikoa» nabarmentzen da, eta «pentsamendu ekintzaile eta akzio pentsalari» bezala aurkezten dugu. Idealismoa, errealismoa eta beti azaldu duen pragmatikotasuna nabarmentzen da.

Pertsonen ongizatearen zerbitzura jarritako bere garapen ekonomikorako proiektua aztertzerakoan, «errealismo utopikoa» adierazten du hainbatek euskarri nagusien artean.

Bere inspirazio-iturri bila hasten garenean, berehala aurkituko ditugu Emmanuel Mounier «filosofo sozial kristaua» Jacques Maritain «filosofo humanista» edo Jacques Chevalier «pentsalari katolikoa», hirurak pertsonalismoaren korrante filosofikoaren barruan biltzen direnak; eta bada ere «bergsonismo katolikoarekin» erlazionatzen duenik ere.

Bestalde, hor azaltzen da Robert Owen ere, kooperatibismoaren sortzailetzat hartu ohi dena, eta bere «sozialismo utopikoaren» proposamenak, «erreformismo interklasistaren» bidean kokatzen direnak.

Arizmendiarietaren izena filosofiarekin lotzerakoan, Interneteko 136.000 emaitzak drastikoki gutxitzen dira 3.800 erreferentzia arte, eta hor leku nagusia hartuko dute Joxe Azurmendik eta bere *El hombre cooperativo* (1984) liburuak.

Oraintsu, Daniel Innerarity filosofoaren izena ere agertzen da; bereziki, Jose Mari Ormaetxea eta Alfonso Gorroñogoitia fundatzaileen omenaldi ekitaldietan parte hartu duelako.

Horrekin guztiarekin zera azaldu nahi nizueke: Arizmendiarieta filosofo eta pentsalariaren nortasunaz ezer gutxi esaten da eta oso gutxi aintzat hartu. Harrigarria badirudi ere, ez bakarrik kanpotik aztertzen dutenen artean. Hemen etxean, ezta ere.

ALEko lehendakaria nintzela, Azurmendiri luzatu genion gonbidapena onartu zuen eta, 2014ko maiatzaren 14ko Batzar Orokorraren amaieran, hamabi orrialdeko txosten bat aurkeztu zigun (<https://arizmendiarieta.org/es/noticias/2014/05/ponencia-de-joxe-azurmendi-en-la-asamblea-general>). ‘Arizmendiarietaren pentsamendua bere testuinguruan’ zuen izenburu, eta Arizmendiarietaren pentsamenduaren funtsezko aukerak planteatzen ditu bertan. Berori aipatu eta aztertu nahi nuke.

Azurmendik Arizmendiarieta pentsalaria errebindikatzen du, eta oinarrizko kontzeptuen maila teoriko filosofikoa xehatzen du zehazki: banakoa, pertsona, komunitatea, balio-jatorria.

Arizmendiarieta eta Simone Weil

Urtebete beranduago, 2015eko urrian, ‘elkarrizketa birtual’ bat proposatu nuen Parisen Arizmendiarieta eta Simone Weil bi filosofoen artean, zehazki ‘lan filosofia’ kontzeptua abiapuntu hartuz.

Assosiation pour l'étude de la pensée de Simone Weil elkartearen zortzigarren kongresuan parte hartu zuten frantziar, suitzar eta kanadar filosofo taldeak harrapatuta geratu ziren ustekabeen. Simone Weilek (1909-1943) eta Arizmendiarietak (1915-1976), nahiz eta garai bertsuan jaioak izan, ez zuten elkarren berririk inoiz izan, eta hala ere bi pentsalari hauen arteko hurbiltasuna harrigarria da hainbat kontzeptu erabiltzerakoan.

Simone Weilentzat, lanaren zentraltasun filosofikoa garbia da. Lana da «naturarekiko gizakiaren jatorrizko ituna, gorputzarekiko arimarena».

Marx eta beste filosofo bakar batzuen ondotik, lanak gizabanakoarentzat eta gizartearentzat duen zentraltasuna ulertu zuen.

Marxek bezala lanaren kontzeptua filosofiaren erdi muinean jartzen baldin bazuen, aldiz, garrantzia erabakigarria ematen zion lanaren antolaketari, erreminten jabegoari bezainbat.

Lanaren estatutu filosofikoa ikusten zuen etorkizuneko erronka teoriko eta praktikoa nagusi bezala, eta «emozio handiarekin» imajinatzen zuela zioen Weilek.

Konbentzitua nago erabat bien bizitza eta ekintzetatik harago dirauten ekarpenak sendotzen dituzten ideia horiek eta filosofoen arteko elkarrizketa hori guztiz emankorrek izango direla. Eta beraiek bizi izan zuten garaia ulertzeko ere baliagarria gerta dakigukeela pentsatzen dut.

Bien pentsamendura hurbiltzen garenean, susmoa dut elkarrekiko galdera sakon eta interpelazio emankorrik ez dela faltako.

Zeregin horretan, ez dut itxaropenik galtzen buru berriak martxan jarriko direla eta pentsalari gazteak ez direla faltako.

Arizmendiarieta filosofoa

Azurmendiren txosten hori ('Arizmendiarietaren pentsamendua bere testuinguruan') lehenik entzun eta gero irakurtzeak asko lagundu nau Arizmendiarietaren pentsalari dimentsioa ezagutzeko. Mila aldiz, aspergarri bihurtu arte, entzun izan ditugun hitz horien zentzu sakona ulertzeko, oso baliagarri gertatu zaizkigu Azurmendiren hainbat idatzi.

«Lehenik eta ororen gainetik, pertsona» baieztapenak, maila teoriko filosofikoan, badu esanahi garrantzitsu bat.

«Zer da Arizmendiarietak hainbeste garrantzia ematen dion pertsona hori, eta bere garrantzia zertan errotzen da?», galdetzen du Azurmendik, eta honela jarraitzen du: «pertsona izatea zer den itzulingeruka, zeharka bakarrik esan daiteke, ezin da zuzenean esan».

Kanten arabera, inperatibo kategorikoa bere kontzientzian itsatsita daraman subjektu morala soilik aintzatetsi eta errespetatu genezakeen zerbait da. Duintasun hutsa besterik ez da.

Pertsonak sortzen duena bere intimitate bakarraren misterioa da, bere kontzientzia. Baina kontzientzia hori inguratzen gaituzten banakoengan aurkitzen dugu. Beste pertsonetik erlazioetan bihurtzen gara pertsona.

Hots, identitate hori elkarrekin, elkarren artean batera konkista dezakegu. Guztion artean lortu eta osatzen dugu pertsonen komunitatea, ez banakoen komunitate bat soilik.

Azurmendiren hitzetan: «Laburbilduz: pertsonengandik eta pertsonentzako ordena berria sortuz bilakatzen gara pertsona». Halakoxea da, horixe bera da, Arizmendiarietak proposatzen duen kooperatibismoa. Hori da Arizmendiarietaren iraultza. Pertsona, beraien kontzientziaz fidatzen da, ez alderdi edo gisa bereko antolakundeez. «Gizakia [pertsona] da guztiaren oinarria. Nolakoa gizakia, halakoa izango da gizartea», errepikatzen zuen Arizmendiarietak berak.

Beraz, praktiko-sozial mailan, pertsona eta askatasuna, erantzukizuna, heldutasuna, solidaritatea... baliokideak dira. Baina horiexek berak dira, zehazki, Arizmendiarietak zerabiltzan bereizgarriak kooperatibista bat deskribatzen duenean.

Banako gizarteak duen nagusitasunaren aurrean, Arizmendiarietak gizaki lankide eta kooperatiboa azpimarratzen du beti. «Ez zuen alferrik esan filosofoak [Aristoteles]

bere burua besterik behar ez duen gizakia gizakion mundu honetan arraro xamarra gertatzen dela; Jainko edo pizti bezala katalogatu behar da».

Gizakiaren joera naturala ez da basamortuaren bakardadea bilatzea, ez eta 'neoliberalaki' inguruko guztien aurka gerra egitea.

Azurmendik laguntzen digu ulertzen Arizmendiarietaren adierazpen askotan, ezer egiten ez duenaren antzera, huskeriatan ariko balitz bezala ari denean, benetako pentsamendu filosofikoa garatzen ari dela.

Lana eta heziketa

Arizmendiarietaren pentsamenduaren erroak XIX. menderaino doaz. Emantzipazio sozialaren mugimendua, nahiz K. Löwithen *Lana eta heziketa* proposamena, gero Marxek kritikatu zuenaren inguruan kokatzen dira.

Beraiek defenditzen zuten dikotomia garbia zen: langileen kasuan, lanak bizitza profesional osoa hartzen du; eskolatzea, berriz, ikasitako klasearentzat gordetako pribilegioa da.

Baina bitxia bada ere, klase biek dituzten xedeak nolabait elkartzen dira, beraien iritzi: langileek heziketa burgesean sartu nahi dute, eta ikasiek, aldiz, 'intelektual langile' bezala aintzatetsiak izateko irrikan daude beti.

Nahiz eta 'ilustratu berantiar' baten itxura har lezakeen norbaiten antzera azaldu, Arizmendiarietak dikotomia hori gainditzea planteatzen du, ikasketak eta lana, biak uztartuz.

Pedagogiari buruzko bere interesa sakona eta landua dirudi, Paulo Freireren *Zapalduen pedagogia* liburuan egindako azpimarra eta nota ugariak ikusarazten dutenez.

«Heziketa harekin [langilea] landu behar da eta ez harentzat», idazten du Freirek liburuan.

Hezitzailearen eta 'heziaren' arteko elkarrizketa bat bezala landu behar dugu heziera. Biak subjektu bilakatzen diren prozesua da, biak dira hazten.

«Orain arte ezagutzen dugun gizadiaren historia klase-borrokaren historia da», idatzi zuen Marxek. Arizmendiarietaren proiektua historiari iraultza ekartzeko proiektu bat da; lankidetzari zimendu berriak jartzea, gure historiari, beraz. Pertsonen arteko lankidetzak benetakoa izan dadin, lankidetzak librea izan behar du. Horrela, pertsonak lehenik pertsona libreak izan behar dute.

Kontzientzia kooperatiboa izatea historiaren filosofia bat izatea suposatzen du. Lana, ekonomia, politika, giza historia osoa, pentsamendu kooperatibistaren ikuspuntutik ikusi eta landu behar dugula, alegia. Lanarekin, lanean, historia egiten ari garela hartu behar dugu kontuan.

Beste behin ere Arizmendiarietaren aipamena erabiliko dut: kooperatibista izateak pertsona izateko modu berezi eta zehatza izan behar du; hots, munduan egon eta izateko modua, munduaren eta historiaren arduradun izateko modu bat.

Bukatzeko, azken hitzek esker onekoak izan nahi lukete.

Gure begirune eta eskerrik sutsuena Azurmendiri, Arizmendiarieta desberdin eta ezezagun bat erakusten digulako.

Euskal tradizio politiko eta soziala, fededuna, apaiz bokaziokoa, europar mugimendu eta alderdi kristau sozial guzien ondotik, bere filosofo sena eta praktika aurkitzen lagundu digulako.

Azken hogeita hamabost urtez, *El hombre cooperativo* liburua argitaratu zuenetik, ahalegin horretan ari zaigu eta horretan dirau. Ildo horretan, hemen zuei aurkezten saiatu naiz Azurmendiren hamabi orrialdeko idazkiak duen balio pedagogiko itzela, bai bere laburrean eta baita bere argitasunean ere.

Azkenik, zera berretsi nahi dut: Azurmendiren laguntza alderaezina eta ordainezina suertatu dela Arizmendiarrietaren proposamenen dimentsio filosofikoa, Mondragonen eguneroko bilakabide praktiko eta soziala gaindituz, identifikatu eta aztertzeko. Hori da pentsalari baten begirada pausatu, zorrotz, sakon eta zehatza.

JAKIN

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus